

OTOITZA

Bihotz guztietan adore emoten dozun guztion Aita Jaungoikoa,
Jesusengan erakusten deuskuzu benetako gurtza,
erlijino formal eta leku sagaratu ororatik haragoko gurtza:
Jesukristok emoten deuskun ur bizitik edan,
Bera bizi osoa eta amaibakoa emonez jauzi egit
uraren iturri bihurtuz gudan.
Ulertu daigula iritsi dala ordua
benetako gurtzaile lez
Zu espirituan eta egian, zuzentasunean eta mai
anai eta arreba guztiakazko alkartasunean,
gurtzeko ordua.
Jesukristo zure seme eta gure anaiak erakutsi euskun lez.

(ik. Koinonia zerbitzuak)



GARIZUMA ALDIKO DOMEKETARAKO HOMILIETARAKO OHARRAK ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN HARITIK

GARIZUMA ALDIKO 3. DOMEKA – MARTXOAK 19 – S. JOSE JESUS, URA DA

- **Urteera 17, 3-7**



Baina egarri zan herria bazter haretan, eta marmarrean hasi zan Moisesen aurka, esanez: “Horretarako atara gaituzu Egiptotik, geu, geure seme-alabak eta abereak egarriak hilarazoteko?” Moisesek deadar egin eutsan Jaunari (...) Harkaitza jo eta ura sortuko da, herriak edan daian. “Jauna gugaz dogu, bai ala ez?”.

- **Paulok Erromatarrei 5, 1-2. 5-8**

Jaungoikoak sinismenaren bidez onartu gaitularik, bakean gagoz beragaz, Jesu Kristo gure Jaunari esker (...) Itxaropenak ez dau huts egiten, Jaungoikoak bere maitasuna isuri deusku-eta geure bihotzetara, berak emondako Espiritu Santuaren bitartez.

- **Joan 4, 5-42**

Iritsi zan, ba, Sikar izeneko Samariako urira... Jesus, bideaz nekatu, putzu-ertzean eseri zan. Eguerdi ingurua zan...Horretan, Samariako emakume bat etorri zan putzura ur bila. Jesusek esan eutsan: “Emoidazu edaten” (...) “Ur honetatik edaten dauana barriro be egarri izango da; nik emongo deusadan uretik edango dauana, oster, ez da sekula egarri izango;... Orduan, emakumeak: “Jauna, emoidazu ur horretatik, barriro egarritu ez naiten...”.

1.- Egiptotik atara ostean, herriaren itxaropena kolokan da eta zailtasunek min egiten dabe. Segurtasunen mira askatasunaren kontura. Moisesi jarki egiten jakoz eta Jaungoikoa frogatu egiten

dabe. Jaungoikoak esku-hartzen dau barriro, baina zantzu bat dago, oroimenean geratuko dan lekua, zalantzaz betetako, tirabira handiko, zentzuna galdu ebeneko une ha gogora ekarriko dauan lekua. Beharbada herriari ahaztu egiten jako sakonera begiratzea, bizi izandakoa ikuskera barritik berreskuratzea, askatasunaren arriskuak bere gain hartzea... Geure kulturari begiratzen badeutsagu be, batzuetan azalekoan, unean unekoan geratzen garala ikusiko dogu. Nekeza da erronkak onartzea. "Kikildu" egiten gara zoritxarraren aurrean, gaiari iges egiten deutsagu edo beti dago errua nori bota.

Honan jasoten dau Evangelii Gaudium aholku-hitzak: *"Gailentzen den kulturari, kanpokoak betetzen du lehenengo lekua, berehalakoak, ikusten denak, azkarrak, azalekoak, behin-behinekoak. Egiazkoak itxurakoari egiten dio tokia. Herrialde askotan, erro kulturalak hondatzea ekarri du globalizazioak, beste kultura batzuen joerak bereganatuz, hauek ekonomikoki garatuak baina etikoki ahulduak diren kulturak izanik ere"* (EG, 62).

2.- Entzun egin behar dogu: Zer gertatzen da gure mundu txikian? Gure bizigiroetako pertsonak, non jarten dabe itxaropena? Eta guk? Non dogu jarrita gure itxaropena?



Evanjelii Gaudiumera joko dogu barriro be: *"Herri askotako fede katolikoak mugimendu erlijioso berrien ugaritzeak dakarren erronkari aurre egin behar dio, horietako batzuk fundamentalismorako joera dute eta beste batzuk berriz Jainkorik gabeko espiritualitatea eskaintzekoa. Hau, hein batean, gizarte materialzale, kontsumista eta indibidualistaren aurrean gizakiek duten erantzuna da eta, bestalde, probetxua atera nahi izatea hiri-bazterretan eta zonalde pobretuetan bizi direnen gabeziak direla eta, hauek berehalako irtenbideak bilatu nahi izaten baitituzte bere giza min handientzat eta beraien beharrentzat. Era oso finean barneratzen diren mugimendu erlijioso hauek, nagusitua dagoen indibidualismo giroan arrazionalismo sekularzaleak utzi duen zuloa betetzera datoz"* (EG, 63).

Antzematen dogu antzeko zerbaite gure inguruan? Gaitzespena eragiten deusku? Zalantzak bizten? Aukeratzat hartzen dogu?

3.- Jesusegaz bat egiteak bizitza aldatzen deutso emakume samariarrari. Hasierako erreparoa, bere eskema eta aurreretxiak, txiki-txiki eginda geratzen dira eta ur biziaren iturria aurkitzen dau. Jesusek hizkuntza barriagaz, bestelako hizkuntza batez hitz egiten deutso eta bere benetako izaera agertzeraz emoten deutso, eta une horretatik aurrera ezer ez da bardin. Ebanjelizazioaren kateak jarraipena dau. Ebanjelizatzaile izan Espirituagaz, maiuskulaz eta minuskulaz. Zer adierazoten dau horrek? Zelan garatu misino hori? Hitza eta bizia. Otoitza eta konpromisoa. Eguneroko kontuetan. Ikusten dogu geure burua misino horretan laguntzen? Konbidatuak sentitu gara?

Frantzisko Aita Santuak Evangelii Gaudium aholku-hitzean dinoskunaz jaubetuko gara. Holan bizi dogu Ebanjelioaren poza? Zein da gure suspergarri eta euskarria? Non dagoz gure ur biziaren iturriak? Espiritua daben ebanjelizatzaileak gara?

"Espiritua duten ebanjelizatzaileak, otoitz eta lan egiten dutenak dira. Ebanjelizatzearen ikuspuntutik ez dute balio gizarte- eta misio-konpromiso benetakorik gabeko proposamen mistikoek ezta bihotza eraldatzen duen espiritualtasuna falta duten gizarteko nahiz pastoraltzako hitz eta jardunek ere..."

Beharrezkoa da konpromisoari eta jardunari kristau zentzua emango dion barne-lana egitea. Gurtza une lasairik gabe, Hitzarekin otoitz egin gabe, Jaunarekin elkarrizketa zintzoa izan gabe, jardun guztiek erraz galtzen dute zentzua, neke eta arazoaren ondorioz nekatu egiten gara eta adorea itzaltzen zaigu.



Elizak inoiz baino gehiago behar du otoitzaren arnas hartzea, eta biziki pozten nau eliz erakunde guztietan otoitz eta bitartekotza eta Hitzaren irakurketako taldeak nahiz Eukaristiaren Gurtza iraunkorrerako egitasmoak ugaritzeak. Aldi berean «muzin egin behar zaio ezkutukoa den eta norbanakoari begira bakarrik dagoen espiritualtasunari, zerikusi gutxi baitu horrek karitatearen eskakizunekin eta Gizon-egitearen logikarekin». Arriskua dago, zenbait otoitzaldi aitzakia bihurtzea misioari bizitza ez eskaintzeko, bizitza estiloa pribatizatzeak kristauak gezurrezko espiritualtasun batera tolestea ekar baitezake". (EG, 262).